

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Asiako bizimodua poluzio sortzaile

ASIAKO HEGOALDEAN oso ohiko bihurtu da zeruan laino marroi edo arreak agertzea, askotan eguzki-izpiak ere ikusten uzten ez dituztenak. Urte batzuk dira hori gertatzen dela eta bertakoek poluzioari egozten diote egoera hori.

Ezaguna da inguruan deforestazio handia dagoela, basoetan suteak eragitearen ondorioz; hiri handiak daudela eta automobilak milioika; etxeetan ere berogailuak poluzioaren iturri izan daitezkeela, eta abar.

Stockholm-eko Unibertsitateko (Suedia) Örjan Gustafsson-ek zuzendutako taldeak poluzio horren jatorria aztertu du karbono-14a erabiliz. Bi lekutan egin dituzte neurketak, Indian eta Maldiva irletan, eta ondorioek harridura sortu dute Asiako inguru horretako agintariengan: poluzio-lainoen %65aren jatorria biologikoa da, hau da, baso eta belar edo egur errekontzatik datoz, eta %35 baino ez da petrolioarekin zerikusirik duten substantzien errekontzatik datorrena.

Arazoa bertako bizimoduari eta ohiturei loturik dago eta konponbideak topatu nahi badituzte bizimodua bera hobetu beharko dute, bestela minbizi tasa edo arnas arazoak handitzen joango dira.

Errekorra: milioi bat bira minutuko

ASKOTAN EROSTEN DITUGU motordun tresnak: autoak, zulagailuak, haizagailuak.... Horien gida-liburuetan sarri azaltzen da “minutuko bira kopuru” kontzeptua. Orain arte, laborategian lortutako minutuko bira kopuru handiena 250.000 izan da, baina horretarako behar ziren baldintzek ezinezko bihurtzen zuten horri erabilera praktikoa ematea.

Orain, Zurich-eko (Suitza) Teknologia Institutuko ingeniariak baldintza normaletan minutuko milioi bat bira egitea lortu dute, hori bai, oso material bereziak erabiliz. Lorpena jauzi teknologiko garrantzitsua da, motore askoz ere txikiago baina ahalmentsuagoak sortzea ahalbidetuko duelako.



Minbizi zelulak harrapatzeko “zepiloa”

Cornell-eko Unibertsitateko Michael King ikerlariak minbiziaren aurkako gailu berezia garatu du: inplantatu ondoren, odolean dauden minbizi zelulak harrapatu eta gorputzean hedatzea eragozten du. Metodo berriak minbizi zelulen herena hil dezakeela frogatu du Kingek egindako ikerketak. www.amazings.com/ciencia/noticias/230109c.html

Hitzek eta bakterioek historia bera azaltzen digutenean

Asiako hego-ekialdeko hizkuntzen jatorria Taiwanen kokatu dute bai hizkuntzak aztertu dituzten ikerlariak, baita gizakiaren hedapena aztertu dutenak ere, azken horiek Taiwaneko bakterio bidaiari bat topatu baitute. <http://ttiki.com/2074>

Alergiak hainbat minbizi mota izateko arriskua gutxitu dezake

Europako Espazio Agentziak sateliteak erabiliko ditu garapen bidean dauden herrialdeetara teleekografia eramateko. Hala, gaixoarengandik ehunka edo milaka kilometrora dagoen medikuak erabili ahal izango du ekografia egiteko behar den tresneria. <http://ttiki.com/2075>

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16